

Abuztuaren 16an  
**URTEAN ZEHARREKO 20. IGANDEA**

### **Agurra**

Hartzazue Jaunaren maitasun-agurra. Haren bakea izan bedi zuekin

### **Sarrerako oharpena**

Igandeko batzarrak argi adierazi behar du harrera oneko Eliza garela, inongo arrazoiengatik inor bazterten ez duena, gu ere, garen bezalakoak izanik Jainkoak beti onartzen gaituela ahaztu gabe. Ekin diezaiogun Mezari bihotz zabalez.

### **Damu-otoitza**

Senideok: aitor ditzagun gure bekatuak, misterio santuak ospatzeko gai izan gaitezen:

—Jesus Jauna, herri guztien salbatzaile zarena: Erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, barkamenaren testigu leiala: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, guztion batasuna nahi duzuna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

### **Otoitza**

**Oi Jainko,  
 ondasun ikusezinak dituzu maite zaituztenentzat;  
 piztu gure bihotzean zeure maitasunaren garra,  
 Zu gauza guztietan eta gauza guztien gainetik maite izanez,  
 guk asma ditzakegunak baino handiagoak diren  
 Zuk agindutako ondasunak irits ditzagun.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
Zurekin eta Espiritu Santurekin batean  
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

### Hitzaren liturgiari oharpena

Salbamena ez da Israeldarrentzat bakarrik. Gogo oneko gizon-emakume guztiei agertzen die Jainkoak bere aurpegi maitekorra. Jesusekin topo egiteak horixe agertzen digu modu ederrean.

### Lehenengo irakurgaia (Is 49, 3. 5-6)

Isaias profetaren liburutik

Honela mintzo da Jauna: «Egin bidezko dena, eta zabilzate zuzentasunez; berehala etorriko baita nire salbamena, eta agertuko nire garaipena. Jauna zerbitzatzeko, Haren izena maitatzeko eta Haren neskame-morroizateko Berari itsatsi zaizkion arrotzak, larunbata hutsegin gabe gordetzen eta nire elkargoan leial irauten dutenak: bilduko ditut nire mendi santuan, poztuko ditut nire otoitz etxean; onartuko ditut nire aldare gainean haien erre-opariak eta eskaintzak. Nire etxea otoitz etxe baita, eta hala deituko dute herri guztiek».

### Erantzun-salmoa (Sal 66, 2-3. 5. 7-8)

Jau- na, zu- re mai - ta - su- na a - bes- tu- ko dut  
be - ti - ren be - ti.



Erruki bekigu Jainkoa, bedeinka gaitzala,  
 ager diezagula aurpegi alai;  
 ezagutu dezaten lurrean zure bidea,  
 herri guztietan Zugandiko salbamena. R/.

Poztu bitez kantari atzerriak,  
 zuzenbidez baitaramazu izadia;  
 zintzo baitituzu gidatzen herriak,  
 eta zaintzen lurrean atzerriak. R/.

Lurrak bere uzta eman du,  
 Jainkoak, gure Jainkoak, bedeinkatzen gaitu.  
 Jainkoak bedeinka gaitzala,  
 lur bazter guztiak beldur diotela. R/.

### **Bigarren irakurgaia** (*Erm* 11, 13-15. 29-32)

San Paulo Apostoluak Erromatarrei

Senideok: Zuei diotsuet, jentiloi: «Jentilen apostolu naizenez, goresmen egingo diot nire zerbitzuari, ea nire odolekoen bekaizgoa bizten dudan eta horietako batzuk salbatzen ditudan. Haien gaitzesteak baketzea badakarkio munduari, zer izango da haien berriz- hartzea, heriotzatik bizira itzultzea baizik?

Ezin aldatuak dira Jainkoaren dohainak eta deia. Zuek, garai batean Jainkoari obeditu ez zeniotenek, orain judutarrek ez obeditzean, errukia iritsi duzuen bezala, haiek ere, orain obeditzen ez diotenek, zuei egin zaizuen errukia dela eta, iritsiko dute errukia.

Jaungoikoak, obeditzen ez dutenen arteko egin gaitu gizon-emakume guztiak, guztioi erruki egiteko».

**Aleluia** (Ik. Mt 4, 23)

Jesusek erreinuko berri ona hots egiten zuen,  
eta gaitz guztiak sendatzen zituen herrian. R/.

**Ebanjelioa** (Mt 15, 21-28)**Homiliarako argibideak**

*Emakume, handia da zure fedea*

Gure herrietan, elizara etortzen den jendeari begiratu besterik ez dago pentsatzeko, erlijioa emakumeek kontu handiago zaintzen duten zerbait dela beraien bizitzan. Behar bada, sentiberago dira errealitate espiritualekiko... auskalo! Antzinako kulturetan, berriz, erlijioa, bai publikoki bizi zena baita familia-girokoa ere, aitaren ardura zen familiaren baitan. Ebanjelioak, ordea, emakumeak kristau bizitzan gero eta protagonismo handiagoa hartuz aurkezten dizkigu, fedearen egiazko eredu aurkezten dituelarik. Ez Andre Maria bakarrik, baita emakume atzerritarra ere eredu aurkezen zaigu, giza indarrak ahultzen direnean Jainkoaz erabat fidatzen den pertsona bezala agertzen baitzaigu, gaur ikusi dugun bezala.

Gau ere etorkinek, gizon nahiz emakumek, fede testigantza bizia ematen digute askotan. Beraietako asko eta asko gaitzik txarrenak, pobretasunarenak, harrapatu ditu eta askotan nagusien mahaiko apurrekin bizi behar izaten dute, ebanjelioan ikusi dugun moduan. Bai jatorriko lurraldean, baita etorkin diren lurraldean ere, beste

batzuk agintzen diete, ez dute lan baldintza duinik aurkitu, baztertuta sentitzen dira... eta Jainkoagandik mirari bat itxarotea beste esperantzarik ez dute.

Elizak, hasieratik hautsi zituen juduen molde estuak, herri eta kultura guztien bidera ateratzeko, hau da, egiaz katolikoa, unibertsala, izateko. Kultura desberdinetan txertatzen asmatu izan du Elizak, Jainkoaren seme-alaben elkarte handia osatzen duela ahaztarazten duten itxikerietan mugatu gabe. San Joan Krisostomok esana da: "Erromako kristauak badaki, Indiako kristaua senide duela". Profetek ere sumatu zuten hori: Jainkoa ezin zitekeen herri bakarraren jabego izan; atzerritarrek ere badute eskubide Jaunaren zerbitzari izateko (Is 56, 1, 6-7).

Nagusien eta "zakurren" mundua utzi eta ogi bera jango duten mahaikide izatea da kontua. Hori da Eukaristian gaurkotzen dugun kristau izaera jatorra. Denok mahai berean, ogi beretik eta ardo beretik hartuz. Arazoa da, ordea, Elizatik atera eta berriro ere hemen sartzean ahaztuta utzi genituen mugak eta bazterketak nagusitzen direla. Ez dugula hemengo mahaikide izatea bizitzara behar bezala luzatzen.

Krisialdi ekonomikoaren garaian, gainera, etorkina baztertzeko arriskua handiagoa da. Gutxiago dugunean, iruditzen zaigu etorkinek lana eta ongizatea kentzen digutela. Ahaztu egiten zaigu beraien lanari eta ahaleginari esker ere izan dugula aurreko urteetan izan genuen ongizatea eta ugaritasuna. Gure eskuzabaltasuna une zailtan agertu behar dugu, krisiaren eraginak talderik ahulenetan indar handiagoa izan ez dezan. Eukaristiaren ospakizunak eman diezazkigula errai errukitsuagoak, bizitzaren otordutik inor ez baztertzen egiaz ikas dezagun.

## **Jainkoaren herriaren otoitza**

Senideok: aurkez diezazkiogun gure otoitzak Jaunari, eta eska diezaiozun entzun ditzala gure bihotzeko erreguak:

—Eska dezagun gaixorik daudelako edota senideen zerbitzura daudelako igandea ospatzera etorri ezin dutenentzat; ospakizun honetan parte hartzerik ez badute ere, Jaunaren poza falta ez dezaten. R/.

—Eska dezagun behartsuenen zerbitzura bizitza eskaintzen dutenentzat; senideekin partekatzen dutena barne-poz eta alaitasun bihur dadin beraiengan. R/.

—Eska dezagun bidean edota etxetik urrun direnentzat; Jainkoak babes ditzan eta barne-bizitza zaintzeaz ahaztu ez daitezen. R/.

—Eska dezagun guretzat; fedean aurrera egin dezagun eta on egiteko gogoia gero eta handiagoa izan dadin gudan. R/.

Jainko Jauna, bihozbera eta apala den Zure Semearen bidez agertu diguzu gizakiak salbatzeko duzun asmoa; entzun gure otoitzak eta ugari itzazu gudan Kristoren sentipen berak, gure hitzez eta egintzaz Zure maitasun leialaren testigantza eman dezagun beti. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

## **Jaunartze ondorengo otoitza**

**Jauna, sakramentu honetan Kristorekin bat eginik  
zure errukiari deika gaude apalki:  
izan gaitzela lur honetan zure Semearen irudikoago,  
haren zorion bera izan dezagun zeruan.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**